

Erantzun ezin hobea : Arabako Heziketa Bereziko langileen %63ak bat egin du lanuztearekin

100 manifestarik euren babesaren eman diote Arabako Delegaritzaren aurrean sindikatuen eskaerari



Arabako Hezkuntza Bereziko langileentzat gaurko deitutako lanuzteak arrakasta handia izan du, sektoreko langileen %63ak hartu baitu parte deialdian.

Kontzentrazioa ere arrakastatsua izan da, 13:00etatik aurrera langile asko eta asko Arabako Hezkuntza Lurralde Ordezkaritzaren aurrean bildu dira.

Grebak izan duen atxikimendu zabal eta handiak argi asko adierazten du langileak bat datozeela egin diren eskaerekin. Batez ere kontutan hartzen badugu ikastetxe gehienetan sektore honetako langile bakarrak lan egiten duela

Hau, beste abisu bat da Tontxu Camposek zuzentzen duen Hezkuntza Sailarentzat eta dei bat bere jarrera alda dezan sektoreko Lan Hitzarmeneko negoziazioan, era horretan sindikatuek egindako eskaerak negoziatuak izan daitezten.

Hezkuntza Sailak bere eskuetan du, gatazka honen irtenbiderako, beharrezkoak diren urratsak ematea negoziazio mahaia edukiz betetzen, eta hau honela ez den bitartean mobilizazioekin jarraitzea behartzen gaituzte.

Lehenengo mobilizazioa oso ondo atera ondoren, orain Bizkaiko eta Gipuzkoako txanda da. Ziur gaude langile gehienok parte hartuko dugula bai lanuztean baita 13:00an Delegaritzaren aurrean egingo diren kontzentrazioetan, Bilbon asteartean eta Donostian ostegunean.

Elkar ikusiko dugulakoan.

2008ko apirilaren 21ean

